



**2000KO URTARRILAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi milako urtarrilaren hogetia zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkate Jaunaren lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga J., Inazio Estensoro Eskisabel J., Gorka Lamy Intsausti J., Arantxa Zumelaga Agirre A., Irantzu Amundarain Irizar A., Julio Ibañez Urteaga J., Jon Agirre Garmendia J., eta Urko Irastortza Aldanondo J.

Jose Antonio Dopazo Martin eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Gorka Lamy Intsausti zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Amundarain Andereak (EH) esaten du gaur greba eguna dela eta arrazoi horrengatik beraiek ez dutela Osoko Bilkura honetan parte hartuko. Jarraian EHko lau zinegotziak areto-tik irten egiten dira.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 1999ko abenduaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Gorka Lamy Intsausti zinegotzia bertaratzen da.

**III.- BIZTALEEN UDAL ERROLDA 2000-01-01 DATARA.-**

Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2000ko urtarrilaren 1 datara Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa prestatu dutelarik, Osoko Bilkurara aurkezten dira zuzenketa honen zenbakizko emaitzak, bere onarpenerako.

Zuzenketa honen arabera, Lazkaok lau mila zortzirehun eta laurogeita sei (4.886) biztanle zituen 2000ko urtarrilaren 1ean. Zenbaki hau ondorengo eragiketen emaitza dugu:

...///...



...///...

| KONTZEPTUAK                            | GUZTIRA      | GIZONEZKOAK  | EMAKUMEZKOAK |
|--|--------------|--------------|--------------|
| Biztanlegoa 1999-01-01 datara          | 4.878        | 2.510        | 2.368        |
| Altak 99-01-01etik 2000-01-01era       | 139          | 71           | 68           |
| Bajak 99-01-01etik 2000-01-01era       | 131          | 71           | 60           |
| <b>Biztanlegoa 2000-01-01era .....</b> | <b>4.886</b> | <b>2.510</b> | <b>2.376</b> |

Osoko Bilkurak, aho batez, 2000ko urtarrilaren 1 datara egindako Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa hau onartu egiten du.

#### IV.- 3 SEKTOREKO 1 P. LURSAILARI IZENA EMATEA.-

Alkateak esaten du herrian garatzen ari diren zenbait gunerentzat apraposak izan daitezkeen izenak aztertzeari ekin zaiola kultura batzordean eta ondoren izen hauek hirigintza batzordera eraman direla.

Gaur onarpenera jartzen den proposamena Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3 Sektoreko 1 P. lursailari dagokio eta etxeak eraikitzen ari direnez gunere horri lehen bai lehen izena ematea beharrezko ikusten da.

Hau honela izanik eta Kultura Batzordeak aukeratutako izenetatik eta hirigintza batzordearen proposamenez, gunere horri ANTZALDE izena ematea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, proposamena aztertu ondoren eta bertaratutako guztien aldeko bo-tuekin Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3 Sektoreko 1 P. lursailari ANTZALDE izena jartzearen proposamena onartu egiten du.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

